

Aretxabaleta,
1994eko maiatzak 5

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Jaunartzea

• Almenen,
liburuaren eguna

• Kirolak:
U.D.A

• Hurretik:
Oskar Ortuzar

3. Boteprontoan
Zergatik egin zinen Aretxagazetako bazkide?
4. Hamabostean behin
Egin-eko hitzaldi informatiboa.
5. Hamabostean behin
Eskolarteko Olinpiadak.
6. Hamabostean behin
Almenen, liburuaren eguna
9. Hamabostean behin
Taun - Taun taldea.
10. Erreportaia
Jaunartzeak.
14. Kirolak
U.D.Aren egoera.
15. Kontu Zaharrak
18. Hurretik
Oskar Ortuzar
19. Agenda eta Aretxazoka

JAUNARTZEA

Jaurnatzearen moda berriaz egin nahi nuke protesta fedebakoen sakramentu bat sortu ote den dut kezka. Ume guztiak bankete eta erregaluen galdezka zentzurik hutsik utzi nahi dute ta montajetik gainezka besterik ez da, haundikeria eta lujoaren festa.

Soineko, argazki, pelukeria "egun handi" baten xarma izan nahi zuen esanahi dena haize boladak darama: Jesusengana hurbildu ordez kontsumismoarengana; gaur egunean egiten dena aldatu behar da dana komunioa izango bada benetan sentitzen dana.

Arantzazu Loidi

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E., Udala.
Inprimategia: EguzkiGRAF **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Zergatik zara Aretxagazetako bazkide?



Mikel Lopez
(Ortzadarreko begiralea)

Atxabaltako barriak dauzkalako, eta herriko kultur talde moduan laguntza bat emateko. Aretxagazetagatik ez balitz, askotan ez ginatke, notizia askokin enteratuko.



Jose Ramon Zubizarreta
(Irakaslea)

Herriko informazioa kalera-tzen du eta gainera euskera promozionatu. Horrelako ekintzei bultzadatxo bat eman behar zai.



Arantxa Iza
(Irakaslea)

Herriko Elkarte honi laguntze arren. Herriko gauza bat denez, guk ez badugu egiten nork egingo du?. Aretxagazetarik ez litzateke egingo.

KARTAK

ERDU-AEK Euskaltegiak Aretxabaletako Herriari

Gutun honen bitartez Aretxabaletako herria zoriondu nahi dugu, AEKrekiko babes maila handia erakutsi duelako.

Herrian egon den gizarte inplikazioa oso positibo baloratzen dugula jakinarazi nahi dizuegu. Euskaltzalegoa eta gizartea mobilizatzea lortu da euskararen normalkuntzarako garrantzia daukan gai baten inguruan, eta hori guztiz manifestapen arrakastatsua...

Ona hemen Kultura Sailarekin izandako harremanen berri:

Kultura Saila AEKrengana zuzendu zen eta bi bileren ondoren, aurten AEKk jasoko duen diru kopurua zehaztu eta elkarrizketa prozesu bati hasiera ematea erabaki zen.

Martxoaren bukaera aldean

**Bakarrik 1.500 pezeta-
ren ordainean urtean...**

aurre-akordio bat sinatu zen HABE eta AEKren artean eta elkarrizketak hasiko lirateke hurrengo hilebeteetan.

Elkarrizketaren helburua AEKko euskaltegiak onartzea da.

Horretarako HABEK irakasleak onartzeko bide adostua zabalduko luke. Hori lortzeko bitariko batzordea sortuko litzateke.

AEKren helburua elkarrizketa hauetan behin-betiko konponbiderako bidea bultzatzea izango da. Elkarrizketa hauek hauteskunde giroak baldintzatu-

takoak izango dira.

Elkarrizketen emaitzak, egotekotan, hurrengo Jaurlearitzak bermatu behar ditu, eta horretarako alderdi guztien jarrera landu behar da. Honetarako AEKk prestatu zuen kanpainari jarraituko zaio eta hurrengo hilabeteetan AEKk herriz-herriz egiten duen lanaren aldarrikapena egingo da. AEKren lana sostengatzeko AEKIDE KANPAINA burutuko da eta Maiatzaren 22an AEKANPADA IZANGO DA.

**ERDU-AEK
EUSKALTEGIA**



Zapatuan, Egin-en Hitzaldi informatiboa izan zen Udaletxeko Ganbaran. Bertan izan genituen Pepe Rei, Ikerkuntza erredaktoreburua, eta Ramon Uranga, Administrazio Kontseiluko Zuzendaria.

Oharra:

Ohar honen bidez, Aretxagazetak bazkide kanpaina barria hasi duela adierazi gura du.

Aurreko Aretxagazetako zenbakian konturatu zineten moduan, joku barri bat dago. Joku honek erregalu onak dauzka. Joku hau, gainera, **Bazkideentzako bakarrik** izango da.

Aurreko zenbakian ere hau adierazi genuen, baina hala eta guztiz bazkide ez diren askok parte hartu nahi izan dute jokuan. Badakizue, joku barrian parte hartu gura baduzu, **ARETXAGAZETAKO bazkide izan behar duzu.**

Aretxagazetako bazkide egiteko, 1.500 pezeta ordaindu behar dira urtean. Baina 1.500 pezeta-ren truke, **Aretxagazeta etxean** jasoko duzu, **jokuan parte hartzeko** aukera izango duzu, **euskarari laguntza ederra** emango diozu eta gainera **ARETXAGAZETA KULTUR ELKARTEARI** kolaborazio handia eskainiko diozu.


MZ MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA
MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13 - 1-A
Tfnoa: 79 71 55

"HERRASTI"
AKEITA ETXEA

Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83



IBARRA
ESTANKOA

Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77



laz Eskola arteko Olinpiadak Atxabaltan burutu ziren.

Eskola arteko V. olinpiadak

Datorren maiatzaren 28an Bergaran Deba Garaiko Eskola arteko olinpiadak izango dira. Deba Garaiko edozein herritako ikastetxean ikasten diharduten O.H.Oko 5. eta 6.mailako neska mutilek parte har dezakete.

Bertan, besteak beste, honako kirol hauek praktika ditzakete: herri-kirolak, gimnasia jokoak, kirol alternatiboak eta ur jokuak.

Olinpiada hauek Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuak antolatu ditu, Gipuzkoako Foru Al-

dundiaren laguntzarekin.

Maiatzaren 19rarte olinpiada hauetan apuntetako epea zabalik dago. Apuntetako fitxak ikastetxeetan banatuko dira, eta fitxak bete ondoren irakasleari eman beharko zaizkio.

Jai haundi horrek arratsaldeko 3retatik 7.30ak arte iraungo du. Bergarara joateko bidaia eta baita itzulerakoa ere, Udal bakoitzak bere ikastetxeekin antolatuko du. Beraz badakizue zer egin, kirol desberdinak egin gura baduzu.

Kirol-etxean, uretako gimnasia ikastaroa maiatzaren 3tik 31arte zabalik. Egunak martizena, eguaztena, eguena eta eguakotxa. Plaza mugatuak, gutxienez 10 pertsona eta gehienez 15. Oraindik izena emateko epea zabalik dago. Informazio gehiago gura izanez gero, 79 64 61 telefonora deitu eta Pedroz galdetu.

Maiatzaren 7an Leintz Bertsotan jaialdia, izango da. Aurten Nikolas Segurola bertsozale eta gajartzailerearen omenez. Apotzagako Auzo Etxe Elkartean egingo da ekitaldia. Lehenik afaria izango da, eta ondoren bertso saioa, bailarako bertsolari heldu eta gazteen partaidetzarekin. Edozein zalantzatarako, dei egin 77 06 09 telefonora eta Arantzazuz galdetu.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria

Martín

Mitarte, 16
☎ 79 01 72



Liburuaren eguneko, ekintza desberdinak

Liburuaren egunak Almenen

Almeneko Mediatekan, apirilean, liburuaren eguna ospatu da. Urtean zehar ekintza desberdinak antolatzen dira eta ikasleen eguneroko lanetan soportea desberdinak (liburuak, aldizkariak, bideo, disketetan) dauzkan dokumentuak aztertzen eta erabiltzen erakutsi da.

Baina apirilean, bi egun berezi euki dituzte: apirilak 12an haur liburuaren nazioarteko eguna, eta apirilaren 23an liburuaren eguna.

Egin diren ekintzen artean honako hauek azpimarratu di-

tzakegu: idazle - irakurleen arteko elkarriketak, haur literatura-
ren papera adierazteko liburu ai-
pagarrien erakusketa, ipuin kla-
sikoaren txokoa, nagusien lan des-
berdinen erakusketa...

Bi egun hauetan gainera Almenen idazleak ere izan ditugu. Besteak beste, Patxi Zubizarreta, Jose Mari Iturralde, Enkarni Genua...

Ekintza guzti hauek Euskera eta Gaztelera-ko Departamentuak antolatu ditu. Gainera, ekintza hauekin mediateka bat antolatu da.

Udaleku irekiak

Aurten, udako udaleku irekiak Ortzadar Atsedean taldeak antolatuko ditu. Hau dela eta, 1994ko Udaleku irekietan parte hartzea gura duten begiraleentzat deialdia zabalik dago.


Udalekuak bi txandatan banatuko dira. Lehenengo txanda uztailearen 1etik 14ra izango da, eta 10 begiralerentzat egongo da lekua. Bigarrena uztailearen 15etik 29ra izango da, eta 9 begirale eta zuzendari batentzako lekua egongo da.

Izenematea maiatzaren 5ean irekiko da eta 12an itxi. Interesatuak Ortzadar taldeko lokaletik (Herriko plaza 7 behean) pasa daitezke, kurrikulum orria jasotzera arratsaldeko 5etatik 8etara.

Informazio gehiago gura duenak 79 01 84 telefonora deitu dezake.

Beraz badakizue, udan lana gura ezkerok aukera ezin hobea daukazue, diru apur bat irabazteko eta gainera egun zoragarri batzuk pasatzeko aukera izango duzue.

EGUZKIGRAF



**Aldizkariak
Inpresok
Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943- 79 18 44 Faxes 943-79 29 41

EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

Joan zen aastean Ana Miranda PSE-EEko Europar Parlamentaria izan genuen Udaletxeko Ganbaran. "Europa eta solidaritate interazional" ari buruz jardun zuen. Hitzaldi arrunta izan beharrean, mahai inguru baten antzekoa izan zen, eta gura izar zutenen guztiarentzako zabalik egon zen.



Azken egun hauetan, argazkian ikus dezakegun azeria Arientza eta Bolina inguruko tranpa batean harrapau zuten. Batzuen zorionerako eta beste batzuen zoritxarrerako ez da azkena izango.

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14
☎ 79 16 10



INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S .A

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D

☎ 79 93 55



Juan zen Otalazelaiko krossaren irabazleak

Otalazelaiko XVI. Kross Herrikoia

Maiatzaren 8an, urteoro lexe, Otala Zelaiko Kross Herrikoia egingo da Urkuluko urtegian. Bertan edozeinek parte hartu dezake.

Gizakumezkoetan beteranoeak eta seniorrek buelta bi egin beharko dituzte, eta emakumeetan buelta bat.

Proba honek Gipuzkoako Herriko Krosseko 2. challenge-rako puntuatuko du.

Lasterketari Zelaiku baserri

aurrean emango zaio hasiera 11etan eta 12,30etan amaiera.

Proba horretarako sariak maila bakoitzerako desberdinak izango dira. Horretaz gain, lasterketako marka 41' 22" 55 gainditzen duenak 25.000 pztako saria izango du. Eta partehartzaileek kamiseta bat jasoko dute.

Izen-emateak 500 pztata balio du eta maiatzak 4tik 7ra Kirol-etxean edo proba hasi baino ordu t'erdi lehenago eman daiteke.

Hainbat kirol udarako

Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuak aurtengo udarako hainbat kirol antolatu ditu: rafting-a, eskalada, kainoi jeitsiera, kanoa, Hidro-Speeda.

Uztailean bost egunetarakourteera bat izango da Galego errekarara. Bertan; rafting-a, eskalada, kanoa, kainoi jeitsiera eta Hidro Speed-a praktikatzeko aukera izango dute apuntatzen direnek. Urteera honen prezioa, Udal Kirol Zerbitzuen bazkideendako, 26.000 pztakoa da.

Beste urteera bat 2 egunetarako izango da rafting-a praktikatzeko. Kostua, 10.000 pztata.

Hirugarren urteeran, Ebro Garaiko kainoietatik zehar, egun osoko ibilaldia kanadiar kanoaz egiteko aukera egongo da. Urteera honen prezioa 2.750 pezetakoa da.

Azkenik, aipaturiko aktibitate guztiak egiteko, bi egunetako beste urteera bat egongo da, 7.000 pezeta ordainduz.

Apuntetako, Deba Garaiko Kiroletxetara jo dezakezue.

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1

☎ 79 71 69

ARETXABALETA

**ANDON
ALTUBE**

ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK

Durana, 36
% 79 10 60

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

Joan zen eguakotxean, Taun-Taun helduentzako txontxongilo taldea izan genuen Aretxabaletako zinean. Taun-Taun taldeak haurren munduan egiten dute lan, eta batipat nagusienean. Nazioarteko hainbat jaialditan hartu dute parte Estatu barruan nahiz kanpoan. Guzti hau jakin guran beraiekin egon gara berbetan.



Taun-Taun taldekoak, ikuskizuna montatzen

"Taun-taun show" teknika barriez landutako ikuskizuna

• Noiz eta zergatik sortu zen Taun-Taun taldea?

• 1987an sortu zen talde profesional moduan, aurretik beste bi urte generaman lanean. Gure lehenengo obra umeentzat izan zen, eta hortik aurrera helduentzat txontxongiloak egiten hasi ginen.

• Zergatik txontxongiloak?

• Guk uste dugu, pertsonak egin ez dezaketengauza asko egin daitezkeela txontxongiloekin.

• Gaur egun txontxongiloen kontura bizitzea, posible al da?

• Horren kontura bizitzea zaila da. Guk une honetan lan hau bakarrik egiten dugu, baina gure soldata miseralea da.

• Dirulaguntzarik jasotzen duzue?

• Alde batetik guk egiten ditugun funtzioak dauzkagu, eta hemendik ateratzen dugu diru gehiena. Bergarako Udalak, lokala utzi eta 500.000 pezetako dirulaguntza ematen digu urtero. Azkenengo obra egitearren, "Makinatik", Eusko Jaurlaritzak 3.000.000 dirulaguntza eman zigun. Hau entzun ondoren, badi-

rudi diru asko dela, baina kontutan eduki behar da obra honetan 8 pertsona ari garela lanean eta denok kobratu behar dugula. Dirulaguntza honekin kostu erdiak ere ez ditugu beteten.

• Zergatik helduentzako txontxongiloak?

• Gure helburua gu moduko jendearengana heltzea zen. Orduan ikusi genuen txontxongilo mailan apenas inork ez zuela lanik egiten eta horrela hasi ginen. Ez dugu uste txontxongiloen majia umeentzako bakarrik denik, guztiok gozatu dezakegu.

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34
79 31 87

**... ARETXAGAZETA
etxean jasotzeaz gain ...**

Maiatza, jaunartzeen hilabetea



Aurten Jaunartzea egin behar duten ume batzuk, Karmele katekistarekin

Maiatzen, 8 eta 9 urte bitarteko ume gehienek lehen jaunartzea hartzen dute. Beraz, hilabete berezia izaten da ume hauentzat. Baina ez bakarrik umeentzat, guraso eta senitartekoentzat ere

bai. Horregatik, ale honetan jaunartze egunak hainbat pertsonentzat duen esanahia eta zentzua jakin guran, Atxabaltako abadeaz, ama batekin eta zenbait neska-mutikokin egon gara.

AURTENGO DATUAK

- ✓ Aurten guztira 49 neska-mutilek egingo dute jaunartzea.
 - Neskak: 22 dira
 - Mutilak: 27 guztira
- ✓ Taldeak: Maiatzaren 15an lehen txanda eta maiatzaren 29an bigarrena. Talde biak euskaraz izango dira, ez dago erdaldun talderik, beraz.
- ✓ Katekistak: Karmele Unzueta, Pili Olazabal, M^o Jesus Arenaza, Glori Ibabe, Itziar Zubizarreta eta Elisa Balza izango dira.

Don Bitoriano Aranburu (Atxabaltako Abadea)



• **Kristau batentzat jaunartzea egiteak zer suposatzen du?**

• Jaunartzea Kristau heziketan zehar pauso bat besterik ez da. Beraz, jaunartzea ez da garrantzitsua, garrantzitsuena Kristau fede heziketa da. Heziketa hori, etxean jaiotzetik gurasoengandik hasten da. Gurasoak dira lehenengo katekistak, gero parrokiak bere babesean hartzen ditu, fede heziketa prozesuari hasiera emateko. Sei urte irauten duen fede heziketa prozesu horretan, jaunartzea sartzen da, helduengana haurtxoa lehen aldiz agertzen den unea, lehen Eukaristia. Horregatik haurtxo batek lehen jauna hartu, lehenengo eukaristia ospatu eta katekesia utziko balu, orduan, lehen jaunartzeak ez luke zentzurik izango.

• **Ze prestakuntza egiten dute umeek?**

• Katekesia, katekesian umeek Jainkoaren berri dute, dena dela, ideia hori etxetik kristau gurasoengandik ekarri beharko zuketean, Jesukristoren bizitza ere irakasten zaie eta kristau elkarteak, hau da, elizaren zentzua zein den erakusten diegu. Azken finean, umeek ikasten eta entzuten dutena bizi izaten eta baloratzen ahalegintzen gara, eta jakina ahalegin horretan gurasoek zer ikusi haundia daukate.

• **Duela urte batzuetako jaunartzetik oraingoetara, ze aldaketa egon da?**

• Aldaketa asko eman dira. Esaterako, sarritan entzuten dugu: "nere haurtxoa lehen jaunartzea hartzeko bidaltzen dut katekesira". Eta esan beharko litzateke: "nere haurtxoa katekesira fede heziketa hartzeko bidaltzen dut".

Matilde Garai (Jaunartzea hartuko duen ume baten ama)



• **Zeure burua kristautzat daukazu?**

• Bai, nire burua kristautzat daukat eta gainera hurrela izateaz harro sentitzen naiz.

• **Jaunartze egunak ze zentzu du zuretzat?**

• Oso zentzu garrantzitsua, eta asko sufritzen dut zentzu erlijiosoa ematen ez dioten pertsonak ikusten ditudanean. Bere burua kristautzat daukan pertsonarentzat egun berezia izan behar du.

• **Egun horretan gastatzen den diru mordoaren gainean, ze iritzi daukazu?**

Zeharo kontran nago. Kristau batentzat egun berezia da, eta horrek ospakizun bat merezi du, baina orain egiten dena nahiko lotsagarria iruditzen zait. Umeak opariaren zain egoten dira eta ahaztu egiten dute egun horrek duen zentzua. Niri gustatuko litzaidake egun hori beste modu batean ospatzea; egun horretan umeak gurasoekin batera komunioa hartzera joan beharko lirateke, orain umeek duten protagonismo barik.

• **Gurasoek hartutako erabakia da, baina ez litzateke kontutan hartu behar umeen iritzia ere?**

Egia esateko adin horretako umeak txikiak dira horrelako erabaki bat hartzeko. Gu guraso bezala, gure sinismena, guk ikasitakoa, nolabait esateko gure hasia umei bameratu gura diegu. Bide hori onena dela uste dugunez, gure semeak jaunartzea har dezaten bidaltzen ditugu, gero nagusiagoak direnean eta erabakiak hartzeko gauza, beraiek ikusiko dute guk eraku tsitako bidetik jarraituko duten edo ez. Dena dela, honen aurrean egon daitezkeen iritzi desberdin guztiak errespetatu beharko liratekela uste dut.

- ▲ Zuentzat zer suposatzen du komunixua egiteak?
- ▲ Noiz egin behar duzue?
- ▲ Nola ospatu behar duzue egun hori?



Alex Azkargorta

- ▲ Kristau izatea.
- ▲ Maiatzaren 15ean.
- ▲ Jolas egiten eta gero nire izebaren baserrian bazkaria eta afaria izango dugu. Horrela ospatu behar dut nik eguna.

Amaia Elorza

- ▲ Jesus ezagutzea.
- ▲ Maiatzaren 15ean.
- ▲ Familiakoak elkartuko gara bazkaria eta afaria egiteko.



Maidar Rebaló

- ▲ Jesusen bizitzan sartzea.
- ▲ Maiatzaren 15ean.
- ▲ Familia arteko bazkaria egingo dugu, eta ondoren jolas egingez.



Nerea Barkala

- ▲ Jesus ezagutzea.
- ▲ Maiatzaren 15ean.
- ▲ Familiakoek tabernan bazkaria egingo dugu, egun hau ospatzeko.



Lehenengo bi ihardunaldiak jokatu dira. Ihardunaldi lasaiak izan dira eta bero handia pasatu behar izan dute jokalariek, baina ez da umorerik falta izan. Beraz, txapelketa bero-bero eta arazorik gabe doala esan dezakegu.

Aker taldearen lana, azpimarratu beharra dago, lehen postuan dago eta bi partiduetan 157 puntu sartu ditu; kontrari, barriz, 65 puntu jaso dituzte.



Arlutz saskibaloia Txapelketa

Sailkapena

AKER	4 puntu
FATXUS AND THE OTHERS	4 puntu
ESGUINCE	3 puntu
SALVA NOT DEAD	3 puntu
HANDRY-FLDY	3 puntu
LLENO POR FAVOR	2 puntu
D.D.K	2 puntu
LEXE GURELEFA	2 puntu
LAS BERRUGAS DE ...	1 puntu

Emaitzak

1go. IHARDUNALDIA

Salva not dead 29 - Esguinca 47
 Lleno po favor 65 - Letxe Gurelefa 23
 Aker 57 - Handry & Flody 39
 Fatxus 57 - D.D.K 37

2.IHARDUNALDIA

Fatxus 39 - Esguinca 34
 Aker 90 - Lexe Gurelefa 26
 D.D.K 32 - Salva not dead 42
 Handry & Flody 36 - Las Berrugas... 32

ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34



Plantila honen etorkizuna ere jokoan dago

UDArek etorkizuna kolokan

UDA elkartearen zuzendaritza berria aukeratzeko kanpainan sartuta daude, eta hautagaien gaia nola doan jakin guran, Eduardo Altube lehendakariarekin egon gara. Eduardo kezkatu azaldu zitzaizun gai horren inguruan. Izan ere, oraindik ez dago hautagai bat ere, eta gauzak ze bidetatik doazen jakinda, ez dirudi aurrerantzean ere inor animatuko denik. Beraz, momentu honetan UDAREN etorkizuna kolokan dagoela esan zigun Altubek.

Oraingo Zuzendaritza batzordeak ez du jarraitzeko asmorik,

eurek bi urtetarako hartu zuten kargua eta dagoeneko hirugarren urtea betetzen ari dira; beraz, laugarrenera ez direla helduko argi daukate: "iaz ordezkorik ez genuela ikusita jarraitzea erabaki genuen baina garbi geneukan beste urte baterako izango zela". Gainera UDAkoek erreleboa oso zaila ikusten dute, euren iritziz jendea ez dago sensibilizaturik, "asko kezkatzen gaitu bazkideek erakusten duten sensibilizazio eskasak eta honen adibide garbia joan zen urteko batzar orokorrean gertatutakoa da, bertan UDAK

dauzkan 700 bazkideetatik 6 bakarrik aurkeztu ziren; hori ikustean lur jota gelditu ginen".

Arazo handia, beraz, UDA taldeak aurrean duena, hautagairik ezin aurkitu dabilta, eta ondorioz ez dago ordezkorik. Arazoa areagotu egiten da denboraldia bukatzeko gutxi falta dela eta sasoi honetan fitxaketak, entrenatzaile berriak edo beselako aldaketak egiteko garaia dela kontutan hartzen badugu. "Erreleboa oso beltz ikusten dugu, eta egunetik egunera, egoerak txarrera egin du, ekaina ere gainean daukagu eta batzar orokorra arte ezin dugu itxoitzen egon. Aurretik etorkizunerako erabaki batzuek hartuta egon behar dute, eta une honetan etorkizuna ez dago gure eskutan".

Oraingo Zuzendaritzak uzteko erabakia hartu duen arren, sartu daitekeen talde barriari era guztietako laguntza eskeintzeko gertu daudela esan ziguten, "animatzen direnek kirol arloan bakarrik izango lituzkete arazoak, eta ez ekonomiari dagokionez".

Atxabaltan, ez ote da inor egongo arazo larri honi aurre egingo dionik?. Baiezkoan gaude.

LASA-AGUILERA

Aholkularitza


Andra Mari Auzunea, 3

☎ 79 29 26

ARETXABALETA

LEIBAR

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79

ARETXABALETA

Zertarako zara
aurrenekoa
ez bada laguntzeko
azkenekoa?.

Zertarako duzu
zerure gehiagokoa,
besteen gutxiagoa
gehitzeko ez baduzu?.

Elkartasuna hitza, senti
mendua bezain ederra.
Gaur egun, takien ta
puntuen ednon entzun eta hartzen
dugu hitza, sentimendua alde batera
utziz.

Ez zuten horrela pentsatzen,
1947. urtean Maiatzaren Lehena zela
eta, euren egoera salatzeko asmoz,
Bilboko lantegi handietako langileek
egindako grebaratuen elkartsuna
adierazi zuten atxabaltar hauek.

Garai hartan herriak jasatzen
zuen egoera ez zen txantxetakoa:
gosea, lan baldintza txarrak... Irtenbi-
de bakarra protesta, greba; baina
agintarien erantzuna, betikoa: egu-
rra.

Nahiz eta Bilbon hasi lehen pro-
testak, denok asma ditzakezue on-
dorioak, ez ziren bertako langileak
bakarrik geratu. Euskal Herriko
hainbat herritan elkartsuna adiera-
ziko zuenik aguertu zeno: Errende-
rian, Eibarren, Atxabaltan...

Gure herrian, grebara deituz ohar
batzuk ipini zituzten lantegietako
sarreretan. Ekintza haren "errudu-



nak" banan banan deitu zituzten
Koartelera, eta handik Udaletxera,
bertan, giltzaperatuak izan zirelarik.
Hurrengo egunez, hori bai txukun
txukun, bizarra kenduta (Horieta-
ko bat "barberoa" baitzen, gero hanka
egitea lortu zuelarik), Donostiara era-
man zituzten trenez esku lotu ta guz-
ti. Estazioan herriko jende gehiena
bildu zen euren elkartasuna adiera-
ziz. Atzekaldean, beste norbaitek:
"Horreik,... lepotik, lepotik" esaten
zuen bitartean.

Donostian, Ondarretako kartze-
lara eraman zituzten (garai hartan
probintziako kartzela han baitze-
goen). "Consejo de Guerra" baten
bitartez epaituak izan ziren. 48 egun
egin zituzten berta, San Juan Bezpe-
ra arte.

Gogoeta txarrak izan arren, zo-
rioneko elkartasun sentimendua, ez
hitza, zer den badakite. Eurek egin
zutenezagatik, eta eurekiko, Atxabal-
tako herriak eginakoagatik; giltza-
pean zeudenean emandako laguntza
eta askatu ondoren egindako harre-
ragatik.

Ikasiko ote dugu noizpait!

1947ko Andra Mari egunean,
meza ondoren ateratako argazkian
atxilotuak izan ziren zazpiak ager-
tzen zaizkigu: (Ezkerretik eskuma-
tara) **Bixente Arze, Bittor Ugalde,**
Manuel Beitia, Felix Ugalde, Ramon Antxia, Nikolas Peña, Luxio Oteiza, eta **Seberiano Agiriano.**

KEPA. ANTZIA

ZARAIA
TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK

...euskarari laguntza ede-
rra emango diozu eta ...

Ekintzak zinearen partez



J.J. Aretxaga

Bukatu da herriko zine denboraldia. **Ignazio Lopez de Uralde** trankilago ibiliko da apur baten. Pipak jatera beste lekuren batera joan behar dute batzuk. Eta zinezaleek pelikulak telebistan ikusi, pipa zarata barik. Egia esanda zinea baino gauza interesgarriagoak egiteko aukera dago hemendik aurrera.

Aste honetan, zapatuan, adibidez, urtero le-txe Leintz Bertsotan egingo da Apotzan. Bailarako bertsolariak **Nikolas Seguro**la Arantzazuko frantziskotarra omenduko dute, gai-jartzen eta aurkezten egiten duen lanagatik. Beste bertso saio inportante bat ere laster izango da herrian. **Elkarrri** mugimenduak, jaialdi bat egin gura zuen dirua lortzeko, Euskal Herriko herriren batean. Herri bat aukeraketan hasi eta... Atxabalta aukeratu. Kiroletxean egingo da eta Euskal Herriko ahozko 3 tradizio azalduko dira: iparraldeko kantaria, jote-

roak eta bertsolariak.

Herri Urrats ere ganean daukagu. Autobusa antolatu du **Loramendik**, lehen Beinkek egiten zuen moduan. Karneta eroatea ez ahaztu. Loramendi Elkartekoek badaukate eskua bete lan. Orain lehenengo Batzar Nagusia prestaketan dabil. Gainera, zuzendaritza taldea ('talde eragilea' deiketan diote) barritzeko bazkideen zerrenda osotik 3 aukeratu ditu bazkide bakoitzak. Nik jarri ditut nire hirurak. Baietz bik urten.

Badoaz **Iñurrategitarrak**. Datorren astean ez dira hemen ibiliko. Atara dituzten jertseek arrakasta izan dute. Arrastaka eroan dituzte. Eztabaida lokal barria: zein den kolorerik zatarrena. Pistatxoa, garbi dago.

Gainerakoan ez dago aparteko barririk. **Asier Arangureni** Herri Komunikabideak aztertze-ko beka eman dio Eusko Ikaskuntzak, baina ez da gauza oso barria. Aretxagazeta ere kontutan hartu behar du bere ikerketarako. A, eta beste gauza bat ahazten zitzaidan. **Gorka Otxoa** aipatu behar du hainbeste futbolero dauden herri honetan. UDAn jokaketan duen arrasatear honen partidua batean 5 gol sartu zituen lehenguan. 5-0 irabazi eta bostak bereak. Kodro moduan, kanpotik etorri eta bera pitxitxi.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA


Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Saria: 7.000 pztako materiala erosi dezakezu Zazpigain liburudendan: liburuak, fotokopiak, karpetak...

**BAZKIDEEK
BAKARRIK IZANGO
DUTE JOKU BARRI
HONETAN PARTE
HARTZEKO AUKERA**

▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datoren eguna baino lehen..



▼ Aurreko zenbakiko erantzuna:

Alberto Iñurrategi

▼ Aurreko lehiaketaren irabazlea, **NAGORE OLABE IRIZAR**. Bazkide -zenbakia: 119.

Zein da argazkian ageri den atxabaltarra?



Erantzuna:.....
 Izen-abizenak:.....
 Helbidea:.....
 Tfnoa:.....



Izena: Oskar Ortuzar.
Ofizioa: Oskar haragitegiko dendaria.
Afizioa: Kotxe karrerak.
Misioa: Haragitegia aurrera ateratzea.

1.- Eguneko momenturik onena?

- Goizeko 10ak inguruan, hamarretakoa egin behar den orduan.

2.- Emakumeak, makilata edo barik?

- Berdin dio. Azken finean emakumearen izaera da balio duena.

3.- Edari bat gomendatu?

- Garagardoa.

4.- Musika talde edo kantante gogokoena?

- Parabellum.

5.- Janari bat?

- Txuleta.

6.- Ze lan egiten duzu etxean?

- Ezer ere ez.

7.- Eskoriatzar batek zer egiten du Atxabaltan lanean?

- Bizimodua aurrera atera. Horrela behintzat lan egiten dut.

8.- Txuleta edo arraina?

- Txuleta.

9.- Zein da gehien saltzen den okela?

- Txahal okela; filetea, txuleta...

10.- Egun berezi baten jateko, okela plater bat?

- Solomiloa. Oso biguna delako.

11.- Atxabaltarrok okela asko jaten dugu?

- Bai.

12.- Tabernaz taberna edo mendiz mendi?

- Tabernaz taberna.

13.- Garagardoa ala kopa bat?

- Garagardoa

14.- Telebista, irratia ala egunkaria, zer nahiago?

- Telebista.

15.- Kirola, zein praktikatuz, zein ikusi?

- Praktikatu bat ere ez, bestela auto krossa gustetan zait.

16.- Futbol talde bat?

- Erreal.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZAIRUAK
 DISEINUA
 APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABAETA

AITZIBER

NIÑOS



Lezama Merkatal Zentrua
 Tfnoa: 79 13 32

8

DOMEKA

- Herri Urrats eguna.
- Otala Zelaiko XVI. Kross Herrikoia.
- Murrukixo Mendi Elkar-tearen urteera: **Herri Urratse-
ra.**

Zikloturisten urteera: **Are-
txabaleta - Kanpanzar - Elge-
ta - Eibar - Areitio - Durango -
Euta - Bernagoitia - Durango -
Kanpanzar - Arrasate - Are-
txabaleta . (92 Km)**

9

ASTELEHENA

- Astelehenetik eguakotxera "**SAL TSA IKASTAROA**" Lo-ramendi Dantza taldearen loka-lean, Deba Garaiko Mankomu-nitateak antolatuta.

15

DOMEKA

- Otala Zelai eguna. Ikus



egitarau berezia.

- Zاراia Mendi Taldearen es-
kutik, **ekintza kulturala.**
- Murrukixo Mendi Elkar-tea-
ren urteera: **Otala Zelaira.**
- Zikloturisten urteera: **Are-
txabaleta - Landa - Urbina -
Arkaute - Alegia - Landa - Are-
txabaleta. (96 Km)**

ARETXAZOKA

Lana

✓ Zure aulkia hondatu ba-
duzu, lasai egon, guk gogortu eta
kordelezko ipurdi berria jarriko
diogu eta. Deitu 79 15 96ra.

✓ OHOk eta 1en eta 2. Goi
Batxilergo klase partikularrak
ematen dira. Tfnoa: 79 45 97.

✓ Edozein motatako lanak
garbira pasetan ditut ordenaga-
iluaz. Interesatuek deitu 79 77 59
telefonora.

Lana

✓ Edozein motatako, lan,
txosten, agiri eta abar ordenaga-
iluz pasatzen dugu. Interesatuak
deitu 79 12 49 zenbakira eta
Agurtzanez galdetu.

✓ Irakasle tituladunak klase
partikularrak ematen ditu
O.H.Oko 1. mailatik 8.arte. Tf-
noa: 77 10 72

Etxebizitza

✓ Pisu bat alokatzen da Atxa-
baltan. Tfnoa: 79 40 19.

✓ Garaje bat alokatzen da
Andra Mari auzunean. Interesa-
tuek deitu 77 08 48 zenbakira.

✓ Pisu bat saltzen da Santa
Kurtz kaleko 5ean. Hiru logela,
egongela, sukaldea, jangela, ko-
muna eta sotoa.

Interesatuek deitu 79 90 62
edo 79 75 91ra.

**atxabaltarren aldizkaria
kalean ikusi ahal izateko
ezinbesteko kolaborazioa
eskainiko dugu.
Euskararen onerako egin
zaitez bazkide**



**Aretxagazeta Elkartea, Kultur-Elkartea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila**